



## BILERA-AKTA

### ZEHAZTASUNAK

Gaia edo arloa: Gipuzkoako Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua

Tokia: Gipuzkoako Foru Aldundia – 2.2 aretoa

Eguna: 2020-02-05

Ordua: 18:30

### BERTARATUTAKOAK

#### Izen-abizenak

#### Kargua

Aitziber Murua	Udala
Pablo Murias	Udala
Iñaki Egaña	Udala
Aitor Garro	Federazioa
Jon Camio	Federazioa
Joxe Mari Urkiola	Federazioa
Xabier Sorondo	Ikastetxe
Oinatz Agirre	Ikastetxe
Unai Esnal	Ikastetxe
Asier Auzmendi	Ikastetxe
Fernando Urien	Ikastetxe
Alicia Figueroa	Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (gonbidatua)
Eneritz Maiora	Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (gonbidatua)
Iñaki Iturrioz	GFA
Itsaso Nabaskues	GFA
Begoña Irazu	GFA

### GAI-ZERRENDAA

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.	1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior.
2. Eskola kiroleko eragileekin harremana eskualde desberdinetan.	2. Relación con agentes de deporte escolar en diferentes comarcas.
3. E2. Helburua eta faseak. Saio berezia egiteko proposamena. A1 dirulaguntzaren simulazioa.	3. E2. Objetivo y fases. Propuesta para realizar una reunión especial. Simulación de la subvención A1.
4. Eskola kiroleko dirulaguntzak. 2019an banatutako dirulaguntza. Aldaketak 2020ko oinarrietan.	4. Subvenciones de deporte escolar. Subvenciones repartidas en 2019. Cambios en las bases de 2020.
5. Futbol kirol-eskolen egoera eta	5. Situación de las escuelas deportivas de



hartutako neurriak. Egungo erronkak.	fútbol y medidas adoptadas. Retos actuales.
6. 2019-2020 ikasturtean martxan jarritako inspezio plana eta gaur egungo egoera.	6. Plan de inspecciones del curso escolar 2019-2020 y situación actual.
7. Eskola kiroleko datuak.	7. Datos de deporte escolar.
8. Bestelako gaiak. Aldaketak web orrian eta formakuntza ikastaroak.	8. Otras cuestiones. Cambios en la página web y cursos de formación.

<b>EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK</b>	
<b>1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.</b>	<b>1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior.</b>
Onesten da.	Se aprueba.
<b>2. Eskola kiroleko eragileekin harremana eskualde desberdinetan.</b>	<b>2. Relación con agentes de deporte escolar en diferentes comarcas.</b>
Iñaki Iturriotzek Gipuzkoako mapa erakusten du esateko Kirol Zerbitzuko teknikarien jarraituko dutela bileretan parte hartzen. Helburua gerturatu eta zuzenean jasotzea eskola kiroleko mahaien egungo egoera eta dituzten erronkak. Horrez gain, guk ere azaldu ematen diren aldaketen berri.	Iñaki Iturrioz enseña el mapa de Gipuzkoa para indicar que los/as técnicos/as del Servicio seguirán participando en las reuniones con el objetivo de recoger de primera mano la situación y los retos de las diferentes mesas de deporte escolar. Así como de informar de primera mano sobre los cambios que se implementan.
Itsasok azaldu du zein gai landu ziren Goierri Eskualdeko mahaien eta, bestalde, Billabonako eta Lasarteko eskola kiroleko mahaietan bilerak egiten ari direla eskola kiroleko birmoldaketa lortu ahal izateko. Bilera hauetan zerbitzuko teknikariak ere parte hartzen ari dira.	Itsaso comenta los temas tratados en la mesa de deporte escolar de la Comarca del Goierri en la que tomó parte, y de las reuniones que se están celebrando en Villabona y Lasarte en cuanto a la readecuación del modelo de deporte escolar del municipio en las que también están participando técnicos del servicio.
Horretaz gain, azaldu du, bi astetik behin, eskualde kirol bulegoetako kideekin bilerak egiten ditugula egunerokoetan sortzen diren gaiak eta zalantzak konpondu ahal izateko.	Por otra parte, se indica también que cada 15 días realizamos reuniones con los responsables de las oficinas comarcales de deportes para solucionar los problemas y cuestiones que se dan en el día a día.
<b>3. E2: helburua eta faseak. Saio berezia egiteko proposamena. A1 dirulaguntzaren simulazioa.</b>	<b>3. E2. Objetivo y fases. Propuesta para realizar una reunión especial. Simulación de la subvención A1.</b>



<p>Iñakik adierazi du ezen, 2017an garatu zen eskola kirolari buruzko hausnarketa prozesuaren ondoren ekimen hau sortu zela, E2 egitasmoa, eskola kiroleko programak aurre egin behar dien egungo arazoei erantzuna emateko. Une honetan, eskola kirolaren xedeak zein diren planteatzen ari gara, eta, ezartzen ditugun helburuetan oinarrituz, nolakoa izan beharko lukeen bere edukiari eta egiturari dagokienez.</p>	<p>Iñaki indica que tras el proceso de reflexión sobre deporte escolar que se desarrolló en 2017 surge esta iniciativa, E2 egitasmoa, con el fin de dar respuesta a los actuales a los que se enfrenta el programa de deporte escolar. En estos momentos, nos planteamos cuales son los objetivos que del deporte escolar y, en base a los fines que nos marquemos, cómo debería de ser en cuanto a su contenido y estructura.</p>
<p>Planteatzen ari gara eskola kiroleko proiektu bat, bilduko dituen oinarritzko eskaintza bat eta eskaintza osagarri bat.</p>	<p>Estamos planteando un proyecto de deporte escolar que aglutine una oferta de base y una oferta complementaria.</p>
<p>Martxotik aurrera emango zaie proiektuaren berri inplikaturako gainerako eragileei. Horretarako, tailer bat antolatuko da, proiektua azaltzeko eta ekarpenak jasotzeko.</p>	<p>Se dará a conocer el proyecto a partir del mes de marzo al resto de los agentes implicados. Para ello, se organizará un taller para explicar el proyecto y recoger aportaciones.</p>
<p>Bestalde, azaldu dute A1 dirulaguntzaren simulazio bat egin dela.</p>	<p>Por otra parte, se explica que se ha realizado una simulación de la subvención A1.</p>
<p>Iñakik gogorarazi du ezen, orain dela 2 urtetik hona, ari direla aldaketak egiten eskola kiroleko dirulaguntzak banatzeko orduan irizpideak aplikatzerakoan (Jolas Hezi, monitoreen erregularizazioa).</p>	<p>Iñaki recuerda que desde hace 2 años ya se van introduciendo cambios en la aplicación de criterios a la hora del reparto de subvenciones en deporte escolar (Jolas Hezi, regularización del monitorado).</p>
<p>Horri dagokionez, simulazioa egin da udalei egindako inkestetan jasotako datuekin (erabilitako parametroak aurkezpenean jasotzen dira).</p>	<p>Al respecto, con los datos recogidos en las encuestas que se realizaron a los ayuntamientos (los parámetros empleados se recogen en la presentación), se ha realizado la simulación.</p>
<p>Erabilitako irizpideak ikusita, zenbait ordezkari komentatu dute gehiegizkoa dela talde bakoitzeko gutxienez 12 parte hartzaile izatearen irizpidea; talde gehienek 8-12 kide izaten dituztela.</p>	<p>A la vista de los criterios empleados, algunos representantes comentan que el criterio de tener que contar con un mínimo de 12 participantes por equipo para recibir subvención resulta excesivo, que la mayoría de los equipos suelen tener 8-12 componentes.</p>
<p>Iñakik esan du kontuan hartuko dela ekarpen hori.</p>	<p>Iñaki comenta que se tendrá en cuenta la aportación.</p>
<p>Ordezkarri batek planteatu du Donostiako zenbait ikastetxe bide horretatik doazela eta beste batzuk ez; baina, udal patronatuak, ikastetxeentzako dirulaguntzak kalkulatzeko orduan, irizpide desberdinak aplikatzen ditu.</p>	<p>Un representante plantea que en Donostia algunos centros escolares van por este rumbo y otros no. Pero el patronato municipal a la hora del cálculo de las subvenciones a los centros escolares aplica diferentes criterios.</p>
<p>Iñakik esan du proiektua Batzar Nagusietan aurkeztu nahi dela foru arau bihurtzeko.</p>	<p>Iñaki comenta que se quiere presentar el proyecto en Juntas Generales para convertirlo</p>



<p>Prozesu horrek gutxi gorabehera urtebete inguru iraungo du, baina ekimena bermatuko du.</p>	<p>en norma foral. Este proceso durará alrededor de un año, pero garantiza la iniciativa.</p>
<p><b>4. Eskola kiroleko dirulaguntzak. 2019an banatutako dirulaguntza. Aldaketak 2020ko oinarrietan.</b></p>	<p><b>4. Subvenciones de deporte escolar. Subvenciones repartidas en 2019. Cambios en las bases de 2020.</b></p>
<p>Iñakik adierazi du 2020rako laguntzen oinarriak otsailaren bukaera aldera argitaratuko direla, GAOn.</p>	<p>Iñaki indica que las bases de ayudas para 2020 se prevé que se publiquen a finales de febrero en el BOG.</p>
<p>Bestalde, Itsasok aurkeztu eta azaldu ditu 2019an eskola kirolean banatutako dirulaguntzak, baita 2020ko laguntzen oinarrietan izandako aldaketak ere. Azken puntu horri dagokionez, adierazi du ez dela aldaketa garrantzitsurik izango eskola kiroleko programari zuzendutako dirulaguntza lerroetan.</p>	<p>Por otra parte, Itsaso presenta y explica las subvenciones que se han repartido en 2019 en deporte escolar, así como los cambios en las bases de ayudas de 2020. En relación a este último punto, se indica que no va a haber cambios significativos en las líneas de subvenciones dirigidas al programa de deporte escolar.</p>
<p><b>5. Futbol kirol-eskolen egoera eta hartutako neurriak. Egungo erronkak.</b></p>	<p><b>5. Situación de las escuelas deportivas de fútbol y medidas adoptadas. Retos actuales.</b></p>
<p>Oraingo ikasturtean, 2. urteko alebin lehiaketan eta futbol modalitateko eskolen arteko koordinazioa zuzenean Kirol Zerbitzuak egin du. Behin-behinean eskumena kendu diote Gipuzkoako Futbol Federazioari eskola kiroleko lehiaketak antolatzeke, 2018-2019 ikasturtean izandako ez-betetzeengatik.</p>	<p>En el curso actual, la coordinación de las competiciones de 2º año alevín y entre escuelas de la modalidad de fútbol se ha llevado directamente desde el Servicio de Deportes. Se le ha quitado temporalmente a la FGF la competencia para organizar las competiciones de fútbol escolar, debido a los incumplimientos del curso escolar 2018-2019.</p>
<p>Klubekiko komunikazio planaren barruan, 2019ko uztailean, zenbait bilera egin genituen inplikaturako futbol klubekin, 2019-2020 ikasturtean lehiaketa nola garatuko den azaltzeko.</p>	<p>Dentro del plan de comunicación con los clubes, en julio 2019 realizamos varias reuniones con los clubes de fútbol implicados para explicarles cómo se iba a desarrollar la competición en 2019-20.</p>
<p>Bestalde, otsailean zehar, beste bilera batzuk egingo dira, ikasturte honetan lehiaketa nola garatzen ari den, horri buruz dituzten ekarpenak eta iritziak jasotzeko.</p>	<p>Por otra parte, a lo largo del mes de febrero realizaremos otra tanda de reuniones para recoger sus aportaciones e impresiones sobre cómo se está desarrollando la competición este curso escolar.</p>
<p>Gaur egungo erronkei dagokienez, futbol eskolen eta eskola kirolaren arteko bizikidetzeta erraztea lortu behar dugu.</p>	<p>En cuanto a los retos actuales, tenemos que conseguir una convivencia fluida entre las escuelas de fútbol y el deporte escolar.</p>
<p>Bestalde, agiri bakar batean biltzen ari gara erregulatutako 5 modalitateen kirol eskolei</p>	<p>Por otra parte, estamos refundiendo en un único documento toda la normativa existente</p>



buruz dagoen araudi osoa. Ziur aski, foru agindu orokor bat eta modalitateen araberako beste espezifiko bat bihurtuko da. Ikasturte honetan onestea aurreikusten da.	sobre las escuelas deportivas de las 5 modalidades regularizadas. Seguramente se transformará en una orden foral general y otra específica por modalidades. Se prevé aprobarla este curso.
<b>6. 2019-2020 ikasturtean martxan jarritako inspezio plana eta gaur egungo egoera.</b>	<b>6. Plan de inspecciones del curso escolar 2019-2020 y situación actual.</b>
Jakinarazi da ikuskapenak egin zaizkiela errugbi eta saskibaloia eskolak dituzten klubei, abenduan.	Se informa de que se han realizado inspecciones a los clubes con escuelas de rugby y baloncesto en el mes de diciembre.
Futbol klubekin egingo diren hurrengo bileretan jakinaraziko zaie futbol klubetan ere ikuskapenak egingo ditugula.	En las próximas reuniones que realizaremos con los clubes de fútbol se les informará que realizaremos inspecciones también en los clubes de fútbol.
Gauzatutako ikuskapenei buruzko informazioa aurkeztu du Itsasok, zeinak adierazi duen kasuren batean araudia urratu dela, eta ondorioz, ziur aski, zehapen prozedura bat hasiko zaio. Lehen zehapenaren kasuan, zehapen hori ekonomikoa izan ohi da.	Itsaso presenta información sobre las inspecciones realizadas, indicando que en algún caso se ha infringido la normativa, por lo que, probablemente, se le inicie un procedimiento sancionador. En el caso de primera sanción la misma suele ser de índole económica.
Udal teknikari batek galdetu du ea, klub bat zehatu denean, dagokion udalari jakinarazi zaion.	Un técnico municipal pregunta si se ha comunicado al ayuntamiento correspondiente en el caso de que algún club haya sido sancionado.
Jakinarazpenak Departamentuko Idazkaritza Teknikoak egiten ditu. Egiaztatuko dugu udalari jakinarazi zaion ala ez.	Las comunicaciones las realiza la secretaría técnica del departamento. Confirmaremos si se ha notificado al ayuntamiento o no.
<b>7. Eskola kiroleko datuak</b>	<b>7. Datos de deporte escolar</b>
Iñakik jakinarazi du aukera dagoela modalitate bakoitzean emandako federazio lizentzien datuak ezagutzeko, eta, modalitate horien barruan, udal eta klub bakoitzean emandakoak, KIROL DATA izeneko aplikazio berriaren bidez.	Iñaki informa de la posibilidad de conocer los datos de las licencias federadas emitidas en cada modalidad y dentro de ellas por municipio y club a través de una nueva aplicación llamada KIROL DATA.
Ikastetxe bateko ordezkari batek galdetu du ea parte-hartzearen igoera ikasle gehiagok parte hartu dutelako den edo, nahiz eta ikasle kopurua txikiagoa izan, parte hartzen dutenek jardura gehiago egiten dituzten.	Un representante de centro escolar pregunta si la subida de participación es porque han participado más escolares o, aun siendo menor el número de escolares, los que participan hacen más actividad.
Erantzuten zaio datuak modalitatearen	Se le responde que los datos son sobre



<p>araberako parte hartze lizentziei buruzkoak direla, eta ikasle berak lizentzia bat baino gehiago izan ditzakeela.</p>	<p>licencias de participación por modalidad, un mismo escolar puede tener más de una licencia.</p>
<p>Bestalde, Itsasok azaldu du zer bilakaera izan duten eskola kiroleko datuek azken 10 urteetan.</p>	<p>Por otra parte Itsaso explica la evolución de los datos de deporte escolar a lo largo de los últimos 10 años.</p>
<p><b>8. Bestelako gaiak. Aldaketak web orrian eta formakuntza ikastaroak.</b></p>	<p><b>8. Otras cuestiones. Cambios en la página web y cursos de formación.</b></p>
<p>Fernando Urienek esan du ezen, ikastetxeek parte hartzen duten surf modalitateko hastapeneko ikastaroetan, arazo berarekin jarraitzen dutela; ez dutela txandarik lortzen jardueran parte hartzeko; Federazioak bi epealdi dituela ezarrita: udaberria eta udazkena, eta, irailaren hasieran deitu arren, ez dela txandarik lortzen.</p>	<p>Fernando Urien comenta que en la modalidad de surf en los cursos de iniciación que participan los centros escolares siguen con la misma problemática, que no consiguen turno para participar en la actividad. Que la federación tiene establecido dos períodos: primavera y otoño, y aun llamando a principios de septiembre no se consigue turno.</p>
<p>Iñakik esan du ezen, datozen egunetan, surf federazioarekin eta klubekin, bilera bat egingo dela gai hori jorratzeko.</p>	<p>Iñaki comenta que en los próximos días se va a realizar reunión con la federación y clubes de surf para tratar el tema.</p>
<p>Unai Esnalek galdetu du ea aukerarik dagoen mendizaletasun modalitatean izena emateko epea zabalik egon dadin; bere ikastetxean badaudela jardueran parte hartzea ikasturtean zehar eskatzen dutenak.</p>	<p>Unai Esnal pregunta si existe la posibilidad de que en la modalidad de montaña pueda permanecer abierto el plazo para hacer inscripciones. Que en su centro hay quien solicita participar en la actividad a lo largo del curso escolar.</p>
<p>Esan zaio arazo hori nola konpondu aztertuko dugula, baina, ziur aski, dagokion Eskualdeko Kirol Bulegoaren bidez egingo dela.</p>	<p>Se le comenta que estudiaremos cómo solucionar la cuestión, pero seguramente se hará a través de la Oficina Comarcal de Deportes correspondiente.</p>
<p>Ez du astirik eman azken gaiak jorratzeko, baina informatzeko bakarrik ziren: web orriaren aldaketak eta prestakuntza ikastaroak.</p>	<p>No da tiempo a tratar los últimos temas pendientes, pero que eran meramente informativos: cambios en la página web y cursos de formación.</p>

Donostian, 2020ko martxoaren 9an

**Begoña Irazu Irazusta**  
Idazkaria